EUROPARC
Turismo Jasangarriaren
Europako Gutunak

# Zergatik da beharrezkoa Turismo Jasangarriaren Europako Gutuna?

# Zergatik atxiki da gure udalerria Turismo Jasangarriaren Europako Gutunari?

## 1

**Lanerako, parte hartzeko eta gobernantzarako tresna praktikoa** da, turismo arduratsua eta jasangarria garatzen laguntzen diguna.

## 2

NBEren **Garapen Jasangarrirako Agendaren (GJH 2030) helburuekin bat dator**.

## 3

**Tokiko biztanleek** Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren balio bereizgarriak babesteko eta mantentzeko **egin duten ahalegina aitortu eta bultzatzen du**.

## 4

**Tokiko ekonomia bultzatzen du**. Horretarako, landa-inguruneari nahiz hiri-inguruneari eragiten dioten estrategiak ezartzen dituzte.

## 5

**Antzeko ezaugarriak dituzten beste destino batzuetatik bereizten gaitu**, eta bisitatzen gaituzten pertsonek eskainitako zerbitzuen esperientzia berezia eta kalitate-maila handikoa izatea bermatzen du.

## 6

**Kontserbazio-proiektuen plangintza sustatzen du**, gure paisaiaren, gure baliabide naturalen, kulturalen, sozialen eta tradizioen erabilera kontzientearen bidez.

## 7

**Karbono-aztarna konpentsatzeko eta klima-aldaketa arintzeko jarrera jasangarriak eta neurriak sustatzen ditu.**

## 8

**Murriztu egiten du** kontrolik gabeko turismo masifikatu batek dakarren **inpaktu negatiboa.**

## 9

**Aukera bat da turismo-eredu beraren alde egiten duten turismo-enpresen asoziazionismoa bultzatzeko**, eta lurraldean presentzia handiagoa duten eragileak eta turismo-plangintza eratzeko.

## 10

**Turismo jasangarri-arekin lotutako eragile eta erakunde publiko eta pribatu guztien arteko koordinazioa eta lankidetza hobetzen ditu**, TJEG elementu bateratzaile, dinamizatzaile eta parte hartzaile gisa erabilita.